AIARALDEA hemen

ARTIACH:
Amaitu da Artiach gaileta fabrikako langileen greba, 152 egunen ostean 6 or.

GEHIGARRI BEREZIA
Aiara, San Jose eta Otxomaio jaiek festa giroa ekarri dute berriro ere eskualdera

Skate Parken zaletasuna gora berriz

erreportajea

Laudioko pump track pista berria. **Andima Errazti**

Irristatzeko grinaren ongarria Aiaraldean

Goraka doa berriro ere patinatzearen eta BMX bizikleten zaletasuna Aiaraldean. Laudio eta Amurrioko skate pista berriak ongarri aproposa dira afizioaren hazkundeak aurrera egin dezan.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Skate eta BMX zaletasunak gorakada bizi izan du azken hilabeteetan eskualdean. Orube aproposa dago horretarako; izan ere, Laudioko pump track eta 'bowl' berriei Amurrion aurki inauguratuko den Skate Park berria gehitu behar zaie. Azpiegitura nahikoa hasi berriak diren zein eskarmentua duten kirolarientzat.

Pandemia osteak ere herritarrez bete ditu eskualdeko skate pistak. 2020ko konfinamenduaren ostean asko izan ziren, ohiko patinatzaileekin batera, skate taula edo patinak soinean Skate Parkera atera ziren herritarrak. Horrela nabarmendu zuen, adibidez, Sergio Gonzalez skaterrak Aiaraldea Komunikabidearekin 2020ko abuztuan egindako elkarrizketa batean: "Konfinamenduaren ostean, afizioa aspaldi abandonatutako herritar asko berriro ere etorri dira gurekin batera patinatzera".

Gauzak horrela, jendez lepo egon izan dira Lamuza Parkeko pistak, uda sasoian bereziki, eta hainbat behar azaleratuz joan dira azken hilabeteetan. Pista zaharrak dira Lamuza Parkekoak, eta erabiltzaileen etorrera handiak txiki utzi ditu.

Polemika artean

Laudioko patinatzaileen beharrak Udalaren asmoekin egin zuten topo. Lateorro auzoan pump track pistarekin batera skate park berria eraikitzeko porposamena aurkeztu zuen tokiko administrazioak, baina proiektua ez zetorren bat patinatzaileen nahi eta beharrekin. Udalak 40.000 euroko inbertsioa aurkeztu zuen 180 metro koadroko pista berri bat egokitzeko. Lamuza parkeko skate parkek 650 metro koadroko azalera dauka, eta erabiltzaileek egungo pista beste toki batean kokatzea eta moduluak konpontzea hobetsi zuten. "Gure ustez, benetako eta kalitatezko skate gune bat eraikitzeko diru nahikorik ez dagoen bitartean, hobe da 40.000€ horiek gaur egun daukagun Skate Park zaharra birmoldatzeko erabiltzea. Skate Park zaharra birkokatzea eta modulu berriak gehitzea zen gure hasierako proposamena, logikoena eta erabilgarriena izateaz aparte, merkeena eta ekonomikoki bideragarriena dena, hain zuzen ere", adierazi zuten 2021eko urrian plazaratutako prentsa oharrean.

Polemikak polemika, 2022ko otsailean zabaldu zuten azpiegitura berria Lateorron 1.100 metro koadroko pump track pista batekin batera. Gaur egun dozenaka gazte eta ez hain gazte elkartzen dira bertan, eta espazioa handia ez den arren zale berri asko erakartzeko baliagarria ikusten dute erabiltzaile askok.

Etxetik oso gertu du Nerea Valle patinatzaileak Laudioko 'bowl' berria, eta egunero, 10 minutuz bada ere, denbora tarte bat dedikatzen dio bertan patinatzeari. Azpiegituraren hainbat behar nabarmendu ditu Vallek: "Zakarrontzi gehiago behar dira, jende asko igarotzen da bertatik eta askotan zaborrez beteta uzten dute dena. Ur txorrotarik ere ez dago".

Pump track pistan jarri du arreta Andima Errazti amurrioarrak: "Goraka doan modalitatea da, eta Laudioko pista oso ondo dago. Ez da aurkitu daitekeen handiena, baina diseinu aldetik Euskal Herrian dagoen onenetarikoa da: hasiberri zein adituentzako egokia. Ni askotan joaten naiz". Ez du, ordea, iritzi berdina skate pista

berriari dagokionean: "Eraiki duten 'bowl' berria ez zait batera gustatzen. Uste dut herrian hainbetse urtez azpiegitura duin bat eskatu duten patinatzaileak isiltzeko egin dutela soilik. Oso txikia da, ez da baliagarria esperientzia dutenentzako".

Amurrio erreferente

Laudion bakarrik ez, Urduñan, Orozkon, Luiaondon edota Amurrion ere aurkitu daitezke patinatzeko guneak.

Amurrion, esaterako, 2005ean bota zituzten pista zaharrak eta bertako erabiltzaileak eskualdeko beste herrietara joaten ziren patinatzera eta BMXean aritzera. Andima Erraztik urteak daramatza BMXaren gainean igota eta ondo ezagutzen ditu zaletasunaren nondik norakoak; horrela gogoratu ditu garai horiek: "Amurrion zaletasun handia zegoen, inguruko herrientzat erreferentea zela esango nuke, baina azpiegitura egokirik ez zegoenez, jendeak albo batera utzi zuen kirola", azaldu du Erraztik.

Azkenean, asko borrokatzeari esker skate pista berri batzuk egin zituzten Amurrion, baina oso estilo zehatz bati bideratuak,

"Zakarrontzi gehiago behar dira, jende asko igarotzen da bertatik eta askotan zaborrez beteta uzten dute dena"

'street' deritzona, eta ez zituen kirolari guztien nahiak asetzen. "Horrek eragin zuzena izan zuen, eta jende askok patinatzeari utzi zion. Horrelako azpiegitura bat eraikitzerako orduan egokiena herriko erabiltzaileen beharrak aztertzea da. Ziurrenik garai hartan herrian maila altuena zuenaren iritzia jaso zuten soilik, eta horregatik egin zituzten estilo horretako pistak".

Aukera berri bat

Amurrion aurki inauguratuko den 'bowl' berriaren atzean aurkitzen da Andima Errazti. "Lau urtez egon naiz borrokatzen proiektua aurrera ateratzeko. Aurrekontu parte hartzaileetara aurkeztu nuen ideia baina ez zen aurrera atera. Kirol teknikariaren atea jo nuen ostean. Ezagutzen dut horrelako azpiegiturak eraikitzen dituen arkitektura enpresa bat. Dosier bat osatu genuen elkarrekin eta Udaleko batzar batean aurkeztu genuen".

Erraztiren temak fruituak eman zituen, eta proiektua eraikitzeari ekin zioten. "Guri eskatu ziguten aholkularitza. Horrelako proiektuak ezin ditu edozeinek gauzatu, enpresa espezializatua

"Amurrion zaletasun handia zegoen, inguruko herrientzat erreferentea zela esango nuke, baina azpiegitura egokirik ez zegoenez, jendeak albo batera utzi zuen kirola"

behar da. Nik bat ezagutzen nuen, eta gure esku egon da diseinu guztia."

Emaitzarekin oso pozik geratu da Errazti "40.000 euro inguruko aurrekontua genuen, diru partida baxua da horrelako proiektu baterako baina emaitza oso ona izan da. Laudioko pistak izandako aurrekontu ezberdinarekin emaitza txukunagoa atera da". Laudion baino arrapala handiagoak egin dituzte, eta horrek maila minimo bat eskatzen du, baina Andimak osagarri ikusten du Laudion hasi eta trebatu ahala Amurrioko pistara jauzi egitearen konbinazioa. "Haurrek oso azkar ikasten dute, eta 'bowl' txiki bat segituan geratuko zaie estu. Amurriokoak garapenerako aukera handiagoak ematen ditu".

Erraztik argi du: "Geroz eta azpiegitura gehiago, orduan eta zaletasun handiagoa egongo da eskualdean". Azpiegituren kalitateak, gainera, eskualdetik kanpoko kirolari asko erakari ditzakeela adierazi du ere amurrioarrak. Bere burua jarri du adibidetzat; eskualdean pista egokirik ez eta Leioako skate parkera bidaiatu izan du astero.

Nerea Valle eta Andima Errazti Laudio eta Amurrioko `bowl'-etan, hurrenez hurren. **Jesus Valle / Jorge Martin, @jotis_taylor**

erreportajea

Inaugurazioa prest

Maiatzaren 21ean inauguratuko dute ofizialki Amurrioko skate park berria. 16:00etatik aurrera egitarau berezia prestatu dute azpiegitura jendaurrean aurkezteko. "Aukera ona da herriak ezagutu dezan zer den zehazki eraiki duguna".

"Teresa Fernandez, Sergio Layos, Danny Leon eta Ian Ponciano arituko dira Amurrioko skatepark berriko inaugurazio ikuskizunean"

Lau profesional ekarriko dituzte egun horretarako: Teresa Fernandez eta Sergio Layos munduko BMX txapeldunak, Danny Leon olimpiadetan parte hartu duen skaterra eta azkenik, Ian Ponciano skater bermeotarra. Lau profesionalek erakustaldia eskainiko dute Ruben Alvarez speakerraren gidaritzapean. Horren ostean, lehiaketa desberdinak antolatuko dituzte eta Aiaraldeko Soinu Sistemak eta Sabin Guarestik girotuko dute arratsaldea.

Txosna bat jartzeko asmoa ere adierazi du Andima Erraztik. Bertatik ateratako diru guztia Alemaniako Share a Bike - Share a Smile elkartera bideratuko dute. Elkarte horrek BMX piezak Afrikara bidaltzen ditu.

"Urtean behin Amurrioko skate pistan horrelako egitasmo bat antolatzea da asmoa", azaldu du Andima Erraztik. Instagram kontu bat ere sortu dute: @amurrio_skatepark. Bertara igoko dituzte Amurrioko pistatik igarotzen diren erabiltzaile ororen argazki eta bideoak.

Zaletasuna bizitzeko 11 modu

Andima Erraztik 15 urte daramatza bizikleta gainean akrobaziak egiten. Mendiko bizikleta batekin hasi zen, basabideetan jauziak egitea atsegin zuelako. Amurrion beste patinatzaile batzuk ezagutu eta bigarren eskuko BMX bizikleta bat erosi zuen bere zaletasunean urrats berri bat emateko. Urteen poderioz hainbat denda eta marka espezializatuen laguntza jaso du, zaletasunarekin aurrera egin ahal izateko.

Hainbat txapelketetan lehiatu da, tartean Santanderren eta Vigon: "Santanderrekoa izugarria izan zen, munduko BMX kirolaririk onenek parte hartu zuten bertan. Ez nuen azken kanporaketa igaro zortzigarren geratu nintzen arren, baina oso ondo pasatu nuen".

Emakumeak taula gainera

13-14 urterekin hasi zen Nerea Valle skate taula gainean ibiltzen. Surflaria da Valle, eta surfeko teknika hobetzeko hasi zen asfalto gainean patinatzen: "Hasieran garraio-metodo bezala erabiltzen nuen, surferako baliagarria zitzaidan eta. Horrela ibili nintzen hiruzpa lau urtez, baina pikatzen joan nintzen. Asko gustatzen zait nire burua neurtzea eta autosuperatzea, orduan egin nuen salto skate pistara".

"Erreferenteak falta zaizkigu. Nik hasieran intimidatuta ikusten nuen nire burua skate pistan"

Emakume erreferenteen falta nabarmendu du Vallek; horrek eragin zuzena du neska gazteak patinatzera animatzerako orduan. "Erreferenteak falta zaizkigu. Nik hasieran intimidatuta ikusten nuen nire burua skate pistan, giro gatazkatsu baten erdian. Zorionez aldatuz doa giro hori, eta lehenengo fatxada igarota erraz integratzen zara mundu honetan. Egun batetik bestera arrapalak jaisteko txanden barruan nengoen. Asko pozten naiz mundu honen parte izateaz".

Patinatzaile askok bezala, Vallek ere kostaldeko herrietara jo du maiz: "Lamuza Parkean oso gutxitan aritu naiz, bertako pista ez dator guztiz bat nire estiloarekin. Sopelanako skate parkera edota Berangoko UK-ra noa gehienbat".

Bertan ezagutu zituen emakume patinatzaile gehiago, eta hauekin guztiekin harremana estutuz garatu du bere zaletasuna. "Neska patinatzaileen 'crew' bat ezagutu nuen: Roll It Girl. Mondragon Unibertsitateko ikasle talde batek sustatutako Leinn proiektua da, eta baina espazio seguru eta atsegin bat sortu dute neska gazte gehiago patinatzera animatu daitezen".

erreportajea

Geroz eta herritar gehiago elkartzen dira eskualdeko skate pistetan. **Andima Errazti / Jesus Valle**

herriz herri

Orozko

UGT eta ESK sindikatuek sinatu dute akordioa enpresako zuzendaritzarekin lan hitzarmen berriarekin soldata igoera egongo da, %12 2020tik 2024ra. ELAk ez du hori babestu eta LAB ados egon ez bada ere, abstentziora jo du, langileen artean garatu diren harreman onak lehenetsita.

152 egun ondoren, Artiacheko greba amaitatutzat jo dute, soldata igoera lortu eta gero

152 egun igaro dituzte langileek lanuzteak egiten.. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

152 greba egun bete eta gero, Artiach enpresako lan gatazka amaitu da, momentuz. Izan ere, UGT eta ESK sindikatuek akordioa lortu dute konpainiako zuzendaritzarekin. Akordio horrek soldata igoera ekarriko die langileei. Zehazki, 2020an % 2, 2021ean % 2, 2022an % 3, 2023an % 3 eta 2024an % 2. KPIak urte horietan % 12 gaindituko balu, ez lirateke atzerapenak sortuko, baina 2025eko soldata % 2 handituko litzateke automatikoki. Edonola ere, azken egunak oso biziak izan dira grebalarien artean. Aintzat hartu beharra dago grebaren pisua LABek, ELAk eta ESK-k eraman dutela, baina, bat-batean, apirilaren 19an, enpresarekin batzartu ziren egunean, UGTk bat egin zuen lanuztearekin, txanda kontratuen harira.

Astearte horretan enpresak eskaintza egin zien beharginen ordezkariei eta, hasieran, LABek, ELAk eta ESK-k baztertu zuten onartzea, nahikoa ez zelako.

Gero, ordea, ESK-k iritzia aldatu zuen eta sindikatu horren jarrera eta UGTrena nahikoa izan da greba bukatzeko.

Alegia, gaur egindako batzarrean, gutxigatik izan bada ere, greba uztearen alde bozkatu dute langileek (13 boza kontra eta 14 alde). ELA protesta jarraitzearen aldekoa zen, lanaldia ez baita murriztu, baina batzarrak ez du aukera babestu.

Ordezkari gehien duen sindikatuak, LABek, abstentzioaren bidea hartu du. Bere kideek baloratu dute enpresaren eskaintzak ez zituela betetzen euren aldarrikapenak -zentzu horretan lanaldi murrizketa eskatu dute-, baina, lehentasuna eman diote langileen artean batasuna mantentzeari lanuzteetan.

Borroka luze baten korolarioa

Artiacheko langileek iazko azaroan abiatu zuten protesta eta egunero lanaldi erdiko greba bete dute. 152 eguneko borroka izan da eta, batzuek nahikotzat jo ez badute ere, gogoratu beharra dago enpresaren lehenengo eskaintzak okertzen zituela egungo lan baldintzak.

Gauzak horrela, hilabete hauetan guztietan piketeak osatu dituzte egunero Orozkoko lantegiaren aurrean, babesa eta elkartasuna jaso dute eta, aldi berean, babesa eta elkartasuna eskaini dute, besteak beste, Madres Mercedarias zentroko beharginei.

Edonola ere, ez da ahaztu behar lan giro gatazkatsua enpresan ez dela sortu azken lan hitzarmena dela medio, eta azken urteetan kaleratzeak eta epaiketak egon direla Artiachen. Halaber, nabarmendu beharra dago urtarrilean enpresa zigortu zutela greba eskubidea urratzeagatik.

herriz herri

Okondo

XVIII. mendeko bolatokia eraitsiko dute, Aldundiaren salaketaren ondorioz

Markuartun dago Aresketako Bolatokia. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aresketako Bolatokiaren azken egunak heltzen ari direla salatu du bere jabeak, Arturo Berganzak. Markuartun kokatutako egitura bola arabarrean jokatzeko eraiki zuten XVIII. mendean -1735. urtea aipatzen da Okondoko Udalean-.

"Felix Mugurutza historialariaren ikerketen arabera, alboko baserria ostatua zen eta jendeak bertan edaten eta jokatzen zuen", azaldu du Berganzak. Jabeak berak goraipatu du 90eko hamarkadan proposamena egon zela eraikina babesteko, baina ez dela ofizialki gauzatu.

Halaber, Berganzak erantsi du Arabako Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuak txostena osatu zuela adierazteko bolatokiak badituela babestu behar diren elementuak. "Dena den, Errepideen Zerbitzuak egindako txostena hartu zuen aintzat epaileak, Ondarearena baztertuta".

Berganzak berak aitortzen du akatsa egon zela bolatokia konpontzeko prozeduran: "Eskatu genituen baimenak alboko baserrian konponketak egiteko, eta uste genuen eremu guztian obrak egiteko aukera ematen zigula, baina ez zen horrela".

Horren ondorioz, eta errepidetik oso hurbil dagoenez, Arabako Foru Aldundiko Errepideen Zerbitzuak salaketa jarri zuen eta epaitegian irabazi zuen kasua. Martxoan agindua bidali dio zerbitzuak jabeari, eraikina eraitsi dezan. Hori beteko ez balu, Aldundiak berak egikarituko luke. "Aurrekontuak eskatu ditut, eta hona etorri izan direnean bolatokia lurrera botatzea zenbateko kostua duen kalkulatzeko esaten didate ezin dela egitura hori eraitsi, baina horrela agindu didate", adierazi du Berganzak.

Epaiaren kontrako helegitea galduta, Arturo Berganzak aukera gutxi ikusten ditu bolatokia -eta barnebiltzen dituen labea, lastategia eta upategia- salbatzeko: "Arabako Foru Aldundiari proposatu diot errepidearen bestaldean dagoen lursailaren zati bat bere esku uztea, errepidea zabaldu nahi izanez gero, baina ezezkoa eman didate. Nik ez dakit zer gehiago egin. Aiarako ondarea galduko dela sentitzen dut".

Okondo Aurrerak aferari buruzko oharra plazaratu du eta exijitu die erakunde guztiei biltzeko eta adostasuna lortzeko, egiturak iraun dezan.

Herriko enplegua sustatzeko ataria ireki du Udalak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Enplegu ataria jarri du martxan Okondoko Udalak, herritarren enplegagarritasuna erraztea eta hobetzea helburu. Udalaren web orrian bertan txertatu dute enplegu atariaren sarbidea, herritar eta enpresa ororen eskura.

Oraindik probaldian dago tresna. Udalak jakinarazi duenez, egoitza Okondon edo inguruetan duten enpresak atarian erregistratu beharko dira, bete nahi dituzten lanpostu hutsak argitaratzeko. Modu berean, herritarrek ere izango dute atarian erregistratzeko aukera. Bertan curriculuma igo eta eguneratu ahal izango dute, eta enplegu iragarkiak kontsultatu.

"Erabat digitalizatuta dagoen eta garai berriekin bat datorren ekimen honen bidez, eskualdeko enpresek dituzten langile-beharrak eta bizilagunen enplegu-beharrak konektatu nahi dira. Horrela, balio handiko ehun-ekonomiko zirkularra sortu ahal izango da, okondoarren talentua ere bultzatuz eta atxikiz", adierazi dute udaleko ordezkariek.

Amurrio

Amurrion izango da Zinegoak jaialdia

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

19. edizioa du aurtengoa Zinegoak jaialdiak. Arte eszenikoen eta zinemaren bidez, homofobia, transfobia eta bifobia salatzea da ekimenaren helburua. Bilbon sortu zen egitasmoa, baina herrika emanaldi ugari antolatzen dituzte; tartean Orozkon, Laudion eta Amurrion. Lehenbiziko bi herrietan martxoan eta apirilaren hasieran eskaini zituzten saioak.

Amurrion apirilaren 30ean eta maiatzaren 14an izango dira emanaldiak. Datorren larunbatean (apirilak 30) 6 filma labur plazaratuko dituzte: *Les filles ne marchent pas seules la nuit*, *Elsa*, *17 minutos con Nora*, *No deberías*, *Berak baleki* eta *To the future, with love*.

Maiatzaren 14an, aldiz, film labur bakarra izango da protagonista, *Nos corps sont vos champs de bataille* izenekoa.

ORAINGOAN BAI

SAN PRUDENTZIO 2022

ehbildu
ARABA

herriz herri

Urduña

JANIRE ORNES
URDUÑAKO AUZOKIDEA

La Posadari agurra

1923tik aurrera, La Posada Urduña hirian gertatu diren gertakari guztien lekuko iraunkorra izan da.

Hamaika pertsona, istorio eta une, leku ezin enblematikoago honen esentzia aldatzea lortu ez dutenak, bere bizitzako ia 100 urte hauetan zehar.

Hainbat berrikuntzari esker, lokala zabalik mantentzea lortu da urte hauetan guztietan, Urduñako kaleetatik igaro diren pertsonen beharretara egokituz.

1960ko hamarkadatik aurrera, batez ere, inguruko lantegietara lanera joaten ziren langile askoren etxea izan da La Posada; eztei, bataio eta gainerako jaietako oturuntzak egiteko tokia izan da; bizilagunen topagune izan da... Azken finean, ostalaritzako lokal bat baino askoz gehiago izan da.

Bere inguruan eman diren aldaketetara egokitzen jakin du, aldaketa asko izan baitira. Jakin izan du unean une jendeak behar zuen bezala mantentzen. Izan ere, ostalaritza bezalako sektore batean, La Posadak tinko eustea lortu du, pasibotasun osoz, dena aldatzen zihoan bitartean.

Aipatzekoa da urte askotan zehar La Posadako balkoia ekitaldi baten lekuko izan dela, Erremedioen Ama Birjina leku pribilegiatu batetik begira dagoela. Izan ere, maiatzaren 9an, Delika, Artomaña, Aloria eta Tertangako alkateek eta Urduñako alkateek diskurtso indartsuak eskaintzen dituzte, jaien esanahaia goraipatzeko.

Izan ere, konta ezin ahala istorio, abentura, elkarrizketa, ospakizun eta abar luze izan dira La Posadako harresiak hartu dituztenak, eta betiko geratuko dira gogoan.

Zaila da lerro gutxitan laburbiltzea lokal baten ibilbidea. Izan ere, ibilbide hori gabe, zaila da azaltzea Urduñako historia hurbila (eta ez hain hurbila). Hala ere, lokalak ateak ixten ditu, baina egunen batean berriro ere hurbiltzen diren guztien bihotzak betetzeko asmoz.

Agur esatea ez da beti tristura iturri. Kontrara, aldaketa unea iritsi dela esan nahi du, eta horrek abentura berriak ekarriko dituela.

Arrankudiaga eta Zollo

41.689,41 euro baliatu dituzte Arrankudiaga eta Zolloko zenbait bide konpontzeko

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hainbat auzoetako bideak konpondu ditu Arrankudiaga-Zolloko Udalak. 41.689,41 euro bideratu ditu guztira lan horiek egitera. Bizkaiko Foru Aldundiak 26.903,14 euro jarri ditu, eta tokiko erakundeak jarri du gainontzeko dirua.

Bi gauzetan zentratu dira egin dituzten konponketak: zuloak kentzean eta bide-zoruak asfaltatzean.

78 bide Arrankudiagan

Udaletik 2020an egin zuten Arrankudiaga eta Zolloko bide publikoen inbentarioa. 78 bide erregistratu zituzten guztira. Horietako 30 errepideak ziren. Beste 48ak, aldiz, zoladurarik gabekoak ziren.

Hori dela eta, bide horiek konpontzeko asmoa adierazi du Arrankudiaga-Zolloko Udalak.

Laudio

Larra Bustingintzak jardunaldiak egingo ditu maiatzean, 40 urteko ibilbidea aldarrikatzeko

Gertakari ezberdinen ondorioz, elkartearen jarduera eten da azken urteotan, baina bizirik irauten du. **Aitor Burgoa**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Larra Bustingintza elkarteak bere 40 urteko ibilbidea ospatuko du maiatzaren 26an eta 27an. Horretarako, biekimen gauzatuko dituzte. Alde batetik, Laudioko zeramikazko pieza historikoen erakusketa egingo du. Horren ardatza izango dira elkarteko kideek egindako lanak. Hala ere, bilduma pribatuek lagatukakoak ere egongo dira, eta San Roke Kofradiak utziko ditu hainbat mende dituen ontzia -lukainkak egiteko baliatzen zena- eta bere pitxer zaharrena. Lan horiek ikusteko Kultura Etxeko Lamuza gelara jo beharko dute interesdunek maiatzaren 26an 17:00etatik 21:00ak arte eta maiatzaren 27an 10:00etatik 13:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak bitartean.

Horrez gain, maiatzaren 27an 18:00etan Blanca Gomez de Segura Zeramikako Euskal Museoko zuzendariak hitzaldia eskainiko du, euskal zeramikari buruz, hain zuzen. Carmelo Serrano Larra Bustingintzako kideak espero du Laudioko historia ere aipatzea adituak. Kultura Etxeko Arraño gelan izango da solasaldia.

40 urteko eskarmentua

Larra Bustingintza taldea 1985ean erregistratu zen ofizialki, baina lehenago sortu zen. "Larra izena dauka Latiorroko auzunean zegoelako jatorrizko tailerra. Marciano Barbero izan zen bere bultzatzailea. Halaber, ez da ahaztu behar Laudion zeramika lantegia egon zela eta Gardean tximinia mantendu dela", argitu du Serranok.

Elkartea bizirik

Jardunaldiak prestatzeko beste arrazoi bat izan da elkartearen iraupena jartzea mahai gainean. Izan ere, pandemia hasi baino lehen euren jarduera eten izan behar zuten, Laudioko Udalak bere labea itxi baitzuen, amiantoa zuelako.

Koronabirusaren eta Kultura Etxean egiten ari diren obren ondorioz, Larra Bustingintzak ezin izan du ikastarorik eskaini, baina aukera izan bezain pronto, ekingo diotela ziurtatu dute. "Jende askok nahi du ikastaroa egin eta galdetzen digute. Jadanik Laudioko Udalak erosi du labea eta espero dugu azpiegitura guztia prest egotean, lehen bezala aritzea berriro. Hau da, ez bakarrik trebakuntza eskaintzea, baizik eta tailerra irekita egotea Kultura Etxeko ordutegi osoan, bazkideek euren sormena garatu dezaten", adierazi du Carmelo Serranok.

Bide batez, labearen erabilera sektore gehiagora ireki nahi dute: "Aurreko labea gurea zen, baina hau herriko ondarea da. Zentzu horretan, uste dugu beira lantzen duen jendeak erabili beharko lukeela eta espero dugu aukera hori izatea."

Autoglasen Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea ezarri nahi dute

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea ezarri nahi dute Autoglasen, ekoizpen arrazoiengatik. Energiaren kostuan eta lehengaien prezioetan egondako gorakadak argudiatu ditu zuzendaritzak. "Ukrainako gerra eta gasaren prezioaren gorakada ere aipatu dizkigute arrazoi moduan", azaldu diote iturri sindikalek Aiaraldea Komunikabideari.

Neurria urte amaierara arte luzatuko litzateke, enpresan dauden 240 langileei eragingo lieke eta jardunaldiaren %40ko murrizketa ekarriko luke. "Halaere, espedientea asterik aste moldatuko litzateke, dauden eskarien arabera". Autoetako haizetakoak ekoizten ditu Autoglasek, eta bere produktuen prezioak igoko ditu, energiaren eta lehengaien kostuen handitzeari aurre egiteko. "Horren ondorioz, zenbait bezero galtzea espero du enpresak, merkatua egonkortu arte". Espedientea kontsulta fasean dago une honetan. Honakoa ez da hornigaien ondorioz eskualdean egon den lehen enplegu murrizketa. Iazko udazkenean (Ukrainako gerra oraindik hasi ez zenean) espedienteak ezarri zituzten Mubea eta Megatech enpresetan, mikrotxipen eskasia dela eta.

42 kilometroko ibilbide zirkularra Laudioko ingurune naturala ezagutzeko

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Laudio Basabideak proiektua aurkeztu dute gaur goizean Arraño mendian. 42 kilometroko eraztun berdeak udalerriko ingurune natural eta kulturalak lotzen ditu, bisitari eta herritarrei hauetaz gozatzeko ibilbideak proposatuz. Ander Larrinaga estrategia eta hiri-garapen zinegotziak nabarmendu duenez, Laudioko ingurune naturala balioan jartzea da proiektuaren helburua. Ibilbide guztiek Lamuza Parkea izango dute abiapuntu, eta pertsona orori egokituak egongo dira.

Behin proiektua aurkeztuta, bideen seinalizazioa abiatuko dute aurki. Horretarako 20.000 euroko inbertsioa egingo du tokiko erakundeak, eta besteak beste, Arabako Mendi Federazioarekin ari da lankidetzan eraztun berdea bidezidor homologatuen katalogoan sartzeko, ibilbide txiki (PR) bezala.

Larrinagak udan aurreikusi du proiektua bere osotasunean egikaritzea, baina aurreratu du honezkero eraztun berdeaz gozatzeko aukera dagoela. Hain zuzen ere, Laudioko Udaleko webgunean eskegiko dituzte ibilbideak jarraitzeko track-ak.

elkarlan asesores
www.elkarlanasesoria.com
2021
Errenta-aitorpena
Zure aitorpena esku onetan
30 urte enpresei eta partikularrei aholkularitza fiskala ematen
Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28
Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51
Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65

herriz herri

Aiaraldea

Aiaraldeko sugeen inguruko informazioa jasotzeko laguntza eskatu du Muskerrak Ingurumen Elkarteak

Kanpaina abiatu dute sugeen aurkako jazarpenaren aurka. **Ander Izagirre**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Udaberriarekin batera sugeen ugaltze-sasoia hasten da eta, horren ondorioz, animalia horien presentzia ugaritu egiten da. Hori dela eta, Muskerrak Ingurumen Elkarteak 'Sugeak Lagun' kanpaina abiatu du, sugeen inguruko informazioa jaso eta herritarrak kontzientziatzeko asmoz. "Sugeak animalia lotsatiak dira, hori dela eta, gutxi dakigu euren ohitura, habitat eta populazioen egoerari buruz", adierazi dute elkarteko kideek. Gauzak hala, animalia horien kontserbazioan lagunduko duten datuak bildu nahi dituzte ekimen honekin.

Sugeen aurkako jazarpena

"Kanpaina honekin sugeak jendearengana hurbiltzea dugu helburu. Izan ere, beraiengan erreparatuz, haiei buruz gauza interesgarriak ikasiz eta beldurra galduz, gutako bakoitza izan daiteke animalia zirraragarri hauen kontserbaziorako giltzarria", adierazi dute ingurumen elkartetik. Horregatik, kontzientziazio kanpaina abiatu dute, jendeak ez ditzan sugeak hil.

Kontrara, sugeen argazkiak eta bideoak bidaltzea eskatu diete herritarrei. Helbide elektroniko bat jarri dute eskura (muskerraknatura@gmail.com) sugeen irudiak eta informazioa biltzeko. Hauek dira eskatu dituzten datuak: argazkia atera duenaren izen abizenak, argazkiaren kokapena eta argazkia noiz egin den. Mezu elektronikoaren gaia "Sugeak Lagun" izan beharko da

Jasotako datuekin, uda amaieran aurkeztuko dute Aiaraldeko suge espezieen zentsua. Fitxategi bat ere prestatu dute, honezkero, eskualdean aurkitu daitezkeen suge moten informazio osatuarekin.

Larrialdi telefonoa

Azkenik, larrialdietarako whatsapp zenbaki bat jarri dute herritarren eskura: +61415387638. "Zeri deritzogu larrialdi bat? Suge bat topatu baduzu zure etxean eta nola atera ez badakizu. Mesedez, ez ezazu hil. Whatsapp mezu bat bidaliguzu argazki batekin eta berehala erantzungo dizugu instrukzioekin", azaldu dute Muskerrakeko kideek.

Lau gorroto delitu erregistratu ditu Ertzaintzak 2021ean Aiaraldean

Abuztuan eraso homofoboa jazo zen Amurrion, eta elkarretaratze jendetsuak egin ziren gertatutakoa salatzeko **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Lau gorroto delituren berri jaso zuen Ertzaintzak 2021ean Aiaraldean. Hala jaso du poliziak EAEko gorroto-gertakariei buruzko memorian.

Txosten horren arabera, Amurrion jazo ziren lau erasoak. Horrez gain, Laudioko bi pertsonari egotzi zieten gorroto delituak egitea, eta Aiara eta Laudioko pertsona banak pairatu zituzten mota horretako erasoak.

Hala ere, txostenak ez du zehazten harremanik dagoen Amurrion egondako lau erasoen eta inputatutako bi laudioarren artean. Era berean, dokumentuak ez du argitzen ezta Laudio eta Aiarako bizilagun horiek pairatutako erasoak Amurrion jazotako lau horien artean dauden.

Delituen nolakotasuna ere ez da aipatzen. Ertzaintzak Aiaraldea Komunikabideari jakinarazi dionez, ez dute datu gehiagorik ematen "herri txikietan delitu horiek jasan dituzten pertsonek biktimizazio bikoitza jasan dezaketelako".

Abuztuko eraso homofoboa

Hala ere, Ertzaintzaren txostenean agertzen den kasuetako bat Amurrion abuztuan (herriko jaietan) gertatutako eraso homofoboa dela ondorioztatu daiteke. Aiarako gazte batek pairatu zuen erasoa taberna batean, kuadrilla baten eskutik.

Kasuak oihartzun zabala izan zuen. Amurrioko eta Aiarako udalek adierazpen instituzionalak plazaratu zituzten gertakaria salatzeko eta elkarretaratze jendetsuak egin ziren bi herrietan.

Ertzaintzaren memoriak aipamen zuzena egiten dio Amurrioko kasu horri, 'Prentsan nabarmendu diren kasuei' lotutako eranskinean.

Egoera orokorra

EAEn 279 gorroto-delitu erregistratu ditu Ertzaintzak guztira. Kasu gehienak -162- eraso arrazista eta xenofoboak izan ziren, eta beste 73 sexu-identitatearen aurkakoak izan ziren. Eraso ohikoenak fisikoak izan ziren, eta erasotzailearen perfila erezehaztu du Ertzaintzak: gizona, jatorri euskaldunekoa eta 35 urtekoa batazbeste.

Azken urteetako kasuak

2020an 7 kasu erregistratu ziren eskualdean. Orduan ere, Amurrion izan ziren gehienak, 5 guztira. Aiaran eta Laudion, aldiz, bana erregistratu ziren.

Aurreko urteetan ere egon dira beste hainbat kasu. Artziniegako jaietan bi eraso lesbofobo salatu zituzten 2019an. Bi urte lehenago, aldiz, CD Orduñak eta Indartsu Klubak adierazpen bateratua argitaratu zuten, lehen taldeko jokalariek partida batean jasotako irain eta mehatxu homofobo, arrazista eta xenofoboak zirela eta.

2019ko urtarrilean oso bestelako gertakaria jazo zen Lezaman: Polizia Nazional ohi bat atxilotu zuten, Ezker Abertzaleko familia baten etxearen aurka tiro egitea egotzita. Hainbat mobilizazio egin ziren, gertatutakoaren atzean gorrotozko delitua zegoela nabarmentzeko, bainabermerik ordaindu gabe aske geratu zen atxilotua, eta ez zioten delitu hori egotzi. Tiro egitea eta legez kanpoko armak izatea leporatu zion soilik epaileak.

www.faktoria.eus
faktoria@aiaraldea.eus
688 647 942
Errotari kalea 4-8
Laudio (Araba)

F

Ekainak 18, zapatua

URTEURREN *festa!*

GORDE DATA ZURE EGUTEGIAN!

Maiatzak 2, 19:00etan

FAKTORIA Asanblada

Gaiordena:

· Festaren antolaketa, Faktoriaren urteurrena
· Uda Faktorian
· Udazkenean zer?

Ate irekien eguna

Faktoria zer den jakin nahi duzu? Espazioa ezagutu? Bazkide izateari buruzko galderak dituzu edo bazkide egin berri zara?

ERDU ATE IREKIEN EGUNERA ETA EZAGUTU FAKTORIA! BESO-ZABALIK JASOKO ZAITUGU!

Noiz? **Maiatzak 6, barikua**
Non? **Faktorian, Errotari kaleko 4-8 pabilioian**

Bisita gidatua: 19:00etan
Askaria eta solasaldia: 19:30ean
* Haurrak, nola ez, ongi etorriak dira!

Eman ezazu izena www.faktoria.eus webgunean

kultura

“Olerkian beste Igor bat naiz, baina ni aurkituko nauzue”

IGOR ARZUAGAk (Areta, 1976) ‘DE ESPANTAPÁJAROS Y ESCARCHA’ OLERKI LIBURUA ARGITARATU BERRI DU ETA POESIARA NOLA HELDU ZEN AZALDU DU. IZAN ERE, ARZUAGA EZAGUNAGOA DA MUSIKARIA IZATEAGATIK.



Igor Arzuaga bere liburuarekin. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Olerki liburua argitaratu berri duzu. Nola aurkeztuko zenuke?

Nire poesia liburua da, hitz jakin batzuekin egindako jolasaren ondorioa da. Jolas horrek *espantapájaros*, *escarcha*, *camino* eta beste hitz batzuk planteatzen ditu erreferentzia gisa esaldiak sortzeko.

Nik hortik sortzen diren ideiak moldatu ditut hitzak baino handiagoa den beste zer edo zer iradokitzeko. Horregatik deitzen dut poesia.

Idazlea ez ezik, musikaria ere bazara. Ezberdintasun handia dago olerkien eta musikaren artean?

Inspiratzen nauena argi bera da, poesian irudiekin egiten dut amets, musikan emozioekin, baina beti sustraitu nahi dut bizitzaren funtsean, eta zailena izaten da, hori, oso gauza erraza dela gestionatzea.

Musikarekin alderatuta, gai ezberdinak jorratu dituzu liburu honetan?

Gaiak ez nau arduratzen poesian. Gauzen erlazioak bai ordea, eta zein moduan esaten diren gauzak ere bai, hor pertsona dago, hori inporta zait, azken finean, hor ematen da ametsen gauzatzea.

Nik musika instrumentala egiten dut azken boladan, agian horrek adierazten du hobekien zein lotura mota bilatzen dudan artearekin.

Beste Igor Arzuaga bat topatuko du irakurleak liburuan edo musikariaren luzapena da olerkia?

Beste Igor bat naiz, baina ni aurkituko nauzue.

Zergatik erabaki zenuen olerkian sartzea buru-belarri?

Hitza baino harago doa poesia. Poesia begietan dago, eta nik bizi nahi dut. Gustatzen zait 'poetika' hitza, 'poesia' baino gehiago. Horrela praktika bat bilakatu daiteke, batzuetan estilo deitzen duguna, eta horrek laguntzen nau. Batzuetan gauzen egia bilatzen dut eta mundu koloretsua nahiko nuke.

Aurkezpenak egingo dituzu?

Ez daukat elkarrizketa askorako gogorik, promozioa eta guzti hori. Jendeak esaten du saltzen jakin behar dela, baina nik idatzi nahi dut.

Canneseko zinema jaialdian egongo da Esti Urresolaren ‘Cuerdas’ filma laburra

‘Cuerdas’ filmaren fotograma. **Nuevecartas**

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Cuerdas film laburrak parte hartuko du Cannesekonazioarteko zinemajaialdian, maiatzaren 17tik aurrera. Zehazki, Kritikaren 61. astean egongo da Esti Urresolaren pelikula laburra.

Ezustekoa izan da hautaketa laudioarrarentzat, eta hala aitortu dio Aiaraldea Komunikabideari: "Ez nuen inoiz amestu ere egingo nire pelikula bat Cannesen egongo zenik". Bi ekoiztetxeren laguntzarekin grabatu du Urresolak ikus-entzunezkoa: Gaiza Films eta Katz Estudio. Horiek erabaki zuten Canneseko zinema jaialdira eramatea lana eta horri esker parte hartuko du egitasmoan.

Cuerdas

Filmari dagokionez, honakoa azaldu du Urresolak: "Bilbon jardunaldi ekofeminista batzuetan parte hartu nuen. Mundu osoko ekintzaileak eta ordezkari politikoak zeuden eta euren artean Muskizeko bat ezagutu nuen, Sara Ibañez. Jardunaldien ostean, berarekin batu nintzen eta bere esperientziak kontatu zizkidan. Bere kide batzuen istorioak ere jaso nituen. Gero, hori guztia baliatu nuen gidoia osatzeko".

Ez da lehenengo aldia laudioarrarentzat: *Nor-nori-nork* filmean ere horrela egin nuen lan. Zailena da alde ia dokumental hori, errealitatean oinarritutakoa, fizkiora pasatzea antzezle profesional talde batekin".

Hala ere, laudioarra oso pozik dago emaitzarekin: "Oso polita izan da prozesua eta uste dut agerian geratu dela zinema eraldatzailea dela. Ahalduntze prozesua izan da. Euren bizitzak kontatu zizkidaten emakumeei egin diegu aitortza".

91 urteko emakume baten eraldaketa kontatzen du pelikulak, bere abesbatzak diru-laguntza galtzen duenean eta taldeko kideek erabaki behar dutenean nola egin aurre egoera horri.

20.000 especies de abejas

Edonola ere, zinemagileak ez du izango denbora gehiegi Cannesen gozatzeko. Berez, maiatzaren amaieran da jaialdia eta ekainaren hasieran bere fikziozko lehen filma luzea grabatu behar du: *20.000 especies de abejas*. Ondorioz, estu ibiliko da denbora aldetik.

Unai Mendibil eta Asier Rubio sailkatu dira Arabako bertsolari txapelketako final laurdenetara

Langraitzeko final zortzireneko parte hartzaileak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aiaraldeko hiru bertsolari tarteanzirelaabaituzenArabako bertsolari Txapelketaren edizio berria apirilaren 1ean: Asier Rubio Hidalgo, Unai Mendibil Etxebarria eta Iñaki Cabeza Conejo. Final zortzirenak jokatu ostean, Rubiok eta Mendibilek aurrera jarraitzeko txartela eskuratu dute. Cabezak, aldiz, Langraitzeko saioan agurtu zuen txapelketa, egindako lanarekin gustora.

Azken final zortzirenen

Asier Rubiok Trebiñun saio borobila egin ostean, Langraitzen ospatutako azken final zortzirenean elkartu ziren Iñaki Cabeza eta Unai Mendibil, eskualdeko beste bi ordezkariak. Aiaraldearrekin batera Maddi Agirre Epelde, peru Abarrategi Sarrionaindia, Markel Lopez Yoller de Arroyabe eta Felipe Zelaieta Txurruka izan ziren.

Urduritasuna zen nagusi bertsolariguztienartean,baina, lehenengo agurrean guztiek argi utzi bezala, zeukaten onena ematera joanak ziren Añanako Kuadrillako herriburura.

Lehenengo ofizio puntuagarrian batera aritu zirenAiaraldekobibertsolariak. Umorez eta konplizidadez egin zuten aurrera Mendibilek eta Cabezak, eta urduritasunak alde batera uztea lortu zuten.

Bakarkako lanean adinaren inguruan kantatzea egokitu zitzaion Unai Mendibili. Iñaki Cabezari, ordea, lan gatazka batean murgilduta zegoen behargin baten papera eman zion Oier Azkarraga gai jartzaileak, eta Tubacexeko greba mugagabean lehen pertsonan bizitako esperientziaren inguruan kantatu zuen tutu enpresako langileak. Ez zen hori izan 8 hilabetez luzatu zen gatazkari egindako erreferentzia bakarra; azken agurrean ere, lankideak eta eskualdeko eragile sozial eta politikoak gogora ekarri zituen Cabezak. Peru Abarrategi Aramaioko bertsolaria sailkatu zen lehen postuan Langraitzeko saioan 204,5 punturekin. Atzetik, Maddi Agirre epeldek 191, 5 puntu eskuratu zituen, belaunaldi berrien grina eta gaitasuna sobera demostratu ostean. Mendibil eta Cabeza bosgarren eta seigarren postuan geratu ziren, hurrenez hurren; 177 eta 153,5 punturekin.

2 aiaraldear hurrengo fasean

Behin saio guztietako puntuazioa eskutan, final laurdenetarako sailkatuen zerrenda plazaratu zuten txapelketako epaileek Langraitzeko saioan bertan. Aiaraldeko hiru bertsolarietatik bik lortu dute hurrengo fasera igarotzea: Asier Rubiok eta Unai Mendibilek.

Maiatzaren 8an Zigoitian ospatuko den saioan aritzea egokitu zaio Mendibili, Markel Yoller Lopez de Arroyabe, Orlando Arreitunandia Riñas, Xabi Igoa Eriz, Peru Abarrategi Sarrionandia eta Manex Agirrerekin batera.

Asier Rubio Aramaion arituko da maiatzaren 14an, Andere Arriolabengoa Bengoa, Oihane Perea Perez de Mendiola, Unai Anda Delika, Felipe Zelaieta Txurruka eta Manu Bendala Garcia-Donas bertsolariekin batera

Bigarren fase honetan osatu beharreko lanak ondorengoak izango dira: hiruna bertso zortziko handian eta txikian; hamarreko txikian ofizio bat, eta bakarkako lana (2 puntu erantzun eta gaiari 2 bertso). Sarrerak bertsosarrerak.eus webgunean eskuratu ahalko dira: bazkideek 4€ ordaindu beharko dituzte emanaldiagatik, eta gainontzekoek 6€.

babestutako edukia

kirola

Maiatzaren 1ean jokatuko da ‘Bizkaia Klasika Orduña Hiria Junior Saria’. Espainiko Estatuko 5 probetako bat izango da norgehiagoka.

‘Bizkaia Klasika Orduña Hiria Junior Saria’, Iberiar penintsulako proben tontorrean

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

2019an izan zen Urduña Hiria Junior Sariaren azken edizioa. **Aiaraldea.eus**

Puntan hasiko du Aiaraldeko txirrindularitzak maiatza. Izan ere, egun bakarrean 2 lasterketa egongo dira bailaran: 'Bizkaia Klasika Orduña Hiria Junior Saria', eta Amurrioko San Jose jaietako lasterketa.

Urduñako Txirrindularitza Elkarteak antolatutako 50. Junior Saria izango da lehena. Hori dela eta, proba berezia izango da aurtengoa. Izan ere, 'Bizkaia Klasikoa' izateaz gain, Espainiako Estatuko txapelketako norgehiagoka puntuagarri bilakatzea lortu dute. Hala adierazi du Asier Oiarzabal Urduñako Txirrindularitza Elkarteko kideak. "2019. urtetik ez dugu lasterketa egin", erantsi du urduñarrak. Hargatik, probari dimentsio handiagoa ematea erabaki dute aurten: "Proposamena prestatu eta bidali genuen, Espainiako Junior Cofidis kopako bost lasterketetako bat izateko Urduñakoa". Esan eta egin: hirugarren lasterketa izango da Aiaraldekoa: "Euskal Herrian bi lasterketa bakarrik izango ditugu: Gasteizekoa eta Urduñakoa".

10:05ean hasiko da proba, eta 115 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute partaideek. Lehenago, ordea, taldeen aurkezpena egongo da, aurreratu dutenez.

7 zatidun etapa

Xehetasunez galdetuta, zazpi zati izango ditu etapak, Oiarzabalek azaldu duenez. Lehenbiziko itzulian Urduña, Markixana, Murga, Lendoño eta Urduña lotu beharko dituzte kirolariek; eta bigarren itzulian Arbieto, Artomañana eta Delika zeharkatuko dituzte. "3. itzuliko ibilbidea errepikatu beharko dute berriro ondoren, laugarren zatian Arbieto, Artomaña, Delikako eliza eta Urduña gehitzeko zirkuituari beste hiru aldiz", erantsi du. Zazpigarren etapa zatian Arbieto, Aloria eta Urduña izango dira zeharkatu beharreko eremuak. "Amurrioko San Joseko txapelketa goiz berdinean izango da, horregatik aurreratu dugu irteera ordua; bi probek errepideetan ez kointziditzeko", azpimarratu du. Ondorioz, 11:30ean izango da Amurrioko San Jose festetako lehiaketaren irteera ordua.

Urduñako Txirrindularitza Elkarteko kidearen hitzetan, goiz osoan zehar giro ederra izatea espero dute hirian. Horretarako, espazio berezia atonduko dute Urduñako Herri Eskolan, probaren jarraipena egiteaz gain bertako produktuak (janari eta edariak) dastatzeko parada eskainiko baitute.

Amurrio, ziklokrosean goren

Azkenaldian Espainiako Estatuko kirol proba askorako aukeratu dute Aiaraldea. Horren adierazle da 2024ko Espainiako ziklokros txapelketako finala Amurrion izateko hartutako erabakia. Horrenbestez, eskualdean erabakiko da ekimen horretako podium eta sailkapen orokorra. Antolakuntzaz, aldiz, Kuskumendi Mendi Bizikleta Taldea arduratuko da. Iñaki Pinedo elkarteko kideak pozik baina "errespetuz" hartu du ardura, aitortu duenez. Ziklokros txapelketaren finala Amurrion jokatzeko proposamena 2023. urterako aurkeztu zuten, baina Bic izan da udalerri aukeratua: "Hala ere, federazioak esan zigun zirkuitua oso polita zela, eta lekua oso aproposa. Aipatu ziguten berriro aurkeztuz gero, irabazi egingo genuela. Eta horrela izan da".

Bi urte falta badira ere, prestaketei heldu diete dagoeneko: hiru eguneko proba izango da, eta Refor izango da lehia gunea. Berez, iaz estreinatu zuten zirkuitua, eta zenbait hobekuntza egin ondotik, ziklo-krosaren maila gorenera hurbilduko dute eskualdeko udalerria.

2022ko ziklo-kros txapelketak, baina, Aiaraldea ere izango du geltoki: azaroaren 5ean Laudioko Nazioarteko Ziklokrosaren XXXIV. edizioaren lekuko izango dira, ohikoan bezala, Ellakuriko kirol zelaiak, Laudioar Txirrindularitza Elkartearen eskutik. Iaz, gainera, emaitza bikainak lortu zituzten aiaraldear txirrindulariek: Gaizka Pujanaketa Hodei Muñoz ekdomina bana etxeratu zuten, eta Lukene Trujillano zein Iñaki Guaresti ere lasterketa askotan gailendu ziren.

kirola

ESKU PILOTA

Koldo Iriartek eta Mikel Gerrerok irabazi dute Udaberria Txapelketa

Koldo Iriartek eta Mikel Gerrerok irabazi dute Udaberria Txapelketa. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Oier Picon eta Aimar Saezek emaitza bikainekin hasi dute udaberria. Udaberriko Txapelketan beraiek eskuratu dituztelehenbipostuak.Trinketan 22 urtez beherakoen finala jokatu zuten apirilaren 8an elkarren aurka Oier Piconek eta Aimar Saezek. 40-25 markagailuarekin, Piconek eskuratu zuen txapela, baina Herriaren Pilota Elkarteak biak zoriondu ditu. Apirilaren 9an, aldiz, Udaberria Txapelketa izan zen Gasteizen, eta bertan ere izan zen zabala Aiaraldeko ordezkaritza.

Hala, Udaberriko Txapelketan ere aritu dira asteburuan eskualdeko pilotariak, Arabako beste zenbait elkarterekin batera. Senior mailako finala, gainera, Amurrio eta Laudioko kluben artean jokatu zuten. Amurrioko ordezkariak Koldo Iriarte eta Mikel Gerrero izan ziren, eta Laudiokoak Oier Picon eta Aimar Saez. Amurrioko pilotariak izan ziren garaile, 22-4 irabazita.

Aurrera begira, bestelako erronkak dituzte esku artean orain bailarako pilotariek. Koldo Iriartek Aiaraldea Komunikabideariadierazidionez, maiatzean hasiko dute Arabako herrien arteko txapelketa, eta bertan neurtuko dituzte indarrak eskualdeko kirolariek. "Laudio eta Amurrio beti ibiltzen dira oso goian, eta pentsatzekoa da aurten ere hor ibiliko garela txapeldun eta txapeldunorde izateko".

BOLOAK

Eneko Martinez, Europako txapelketaren motor

Testua
Aitor Aspuru Saez

Kantabriako lurretan ekin dio udaberri garaiari Eneko Martinez murgarrak. Motor gidari gazteak Cangas de Onisen izan zuen lehenbiziko Triala, eta laugarren sailkatu zen bertan. "Oso sentsazio onak izan nituen", adierazi du sare sozialetan.

Europako txapelketan lehiatu zen bigarren asteburuan. "Lehenbiziko itzulia 8. postuan bukatu nuen, baina bigarren bueltan erretiroa hartu behar izan genuen arazo asko genituelako". Erabaki zaila izan zen, aitortu duenez. Hala ere, aurrera begira ditu begirada eta zangoak jada: "Espero dugu Frantzian goiari eustea". Arabako Motoziklismo Federazioko kidea da Murga, eta gaztetatik darama kirol horretan lehiatzen.

PARAPENTEA

Parapentistek Aiaraldeko zerua hartu zuten Aste Santuan, Bizkaiko Txapelketa lehiatu baitzen

Orozko izan zen Bizkaiko Parapente Txapelketako erdigune. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Apirilaren 15etik 17ra bitartean lehiatu zen Orozkon Bizkaiko Parapente Txapelketa. Guztira 53 kirolarik eman zuten izena, horien artean Euskal Herritik kanpo etorritako asko: Katalunia, Kantabria edota Espainiako Estatuko beste puntu batzuetatik, baita Alemaniatik eta Britaina Handitik ere hurbildu ziren Orozkora.

Arrola mendiko Santa Marina ingurutan hasi dira hitzordu guztiak, apirilaren 14koa barne -entrenatzeko baliatu zena-. Parapentistek Aiaraldea osoa zeharkatu zuten airetik. Irudietan ikus daitekeenez, Gorobelera jo zuten egun batean eta larunbatean Laudio zuten helmuga.

Bizkaiko Parapente Txapelketa lehiatu zen Aste Santuan Orozkon. Arrola mendian abiatu zituzten probak eta eskualde osotik mugitu ziren kirolariak

Gorka Uribe Aldekoa izan zen irabazlea eta Joseba Sobron Mendibil bigarrena. Gorka Tornos Zabala sailkatu zen hirugarren eta Maite Uribarri Sarasola izan zen hamargarrena, hobeto lehiatu zen emakumezkoa, alegia. Eskualdeko parapentistak ez ziren falta, Orozkoko taldeak antolatu baitzuen dena. Aiaraldearren artean Andres Larrinaga edota Asier Sanchoyerto zeuden.

Apirilaren 17an banatu ziren sariak Zubiaur plazan arratsaldean, azken proba amaitu ostean.

Ibilbide guztiak batuta, 170 kilometro baino gehiago egin zituzten hegan eta nahiz eta apirilaren 18an ere lehiatu behar ziren, igandean eman zuten amaitutzat proba, eguraldi iragarpena ez baitzen ona.

herriko plaza

Nerea
Zorionak Nerea!!!!!! Asko maite zaitugu!.

Familia

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. aiatzaren 10ean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

		2		3	7	6		4
6				2			8	
			6			5		
2		9		5	4			6
				7			5	3
	7			6			2	
		6	8					
			5		3	7		8
	5	8			6		4	

ZAILA

						7		
2								
			5		9		1	
		9		5			4	6
			8					7
		5			3			
8	7		4			6	5	
	2							8
6			3					

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

Maik Falls musika ekoizle laudioarraren *Reset* albuma

Maik Falls musika ekoizle laudioarraren Reset diskoaren ale bat zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak. Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** maiatzak 6, 12:00etan.

KOKO RIKO

BALIABIDE GUNEA

MUNSTRO BAT OHE AZPIAN

Egilea: Angelika Glitz eta Imke Sönnichsen
Argitaletxea: Ttarttalo
Adina: 3 urtetik aurrera
Beldurren inguruan hitz egiten duen ipuina da. Aproposa haurrekin beldurraren emozioa lantzeko. Nagusiak eta haurrak elkarrekin lagunduz zelan aurre egin konatzen digu ipuinak.

BELDURRIK GABE

Egilea: Manuel L. Alonso
Argitaletxea: Begiko
Adina: 12 urtetik gora
"Ezberdina" da Bittor pertsona eta horregatik beldurra du. Besteengan pizten dituen emozieongatik beldur. Liburuan Leon ezagutuko du eta berarekin batera bizitzaren abenturaz gozatzen hasiko da.

JOLAS GUNEA

MUNDUKO JOLASAK

JOLASA: Gartzango
LEKUA: Asia

AZALPENA: 'Harri-orri-ar' jolasaren moldaera bat da. Bi talde egiten dira eta ibilbide bat zehazten da. Asiako jolas honetan espiral bat margotzen da lurrean. Taldeetako bat espiralaren erdian kokatzen da eta bigarrena espiralaren kanpoaldean. Talde bakoitzetik pertsona bat ateratzen da eta elkartzea 'Harri-orri-ar' jolasa egiten dute. Irabazleak ibilbidearekin jarraitzen du eta galtzailea bere taldera bueltatzen da. Galtzaileen taldetik beste pertsona bat ateratzen da irabazleari bidea oztopatzen eta berriz 'Harri-orri-ar' jokoa egiten dute.



JOLASA: PONDAS
LEKUA: Afrika

AZALPENA: Punteria lantzeko jolasa da. Beste taldeko piezak ahalik eta lasterren bota behar dira. Bost metroko distantziara kokatzen dira bi taldeak. Taldearen aurrean erori daitezkeen 6 bote txiki jartzen dira. Txandaka pilota batekin beste taldekoen boteak botatzen saiatu behar da jokalaria

JOLASA: BLANKEY
LEKUA: Amerika

AZALPENA: Jolas honetarako pilota bat eta bi ohial zati beharko dira. Dauden jokalarien arabera ohial gehiago ere erabili daitezke. 4-5 pertsona elkartzen dira eta ohialak hartzen dituzte. Helburua pilota ohialetik ohialerapasatzea izango da lurra ikutu gabe.

KOKO RIKO

KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Limiteekin bueltaka

Munduak bere baitan bueltak eta bueltak ematen dituen modu berdinean, haurren heziketan ere bueltak ematen zaizkio kontzeptu berdinei. Lehen ondo zegoena orain ez dago ondo ikusia, eta orain egiten diren praktika batzuk lehen pentsa ezinak ziren. Buelta horietan gurasoak mareatu ere egiten gara eta askotan latigoa ateratzen dugu gure burua kolpatzeko.

Gurasook, ohikoan, haurrekiko maitasunez eta beraientzako onena emanez hezten saiatzen gara. Ez da lan makala, eta globalizazioaren mundu honetan hainbeste gauza irakurtzen dira, praktikan jartzen saiatzen ezinezkoa dela. Naturaltasuna eta kontzientzia uztartzean datza magia, formula erabiltzea, aldiz, ez da hain erraza.

Haurren hasiera aldatu egiten da generazioaren arabera, eta unean une gauza batzuk hobeto ikusiak dira beste batzuk baino. Askotan ukatzen saiatzen gara guk jasotako heziera, eta zenbatetan gure burua ikusten dugu guk jasotakoa birproduzitzen. Ikasitakoa kutxatxo batean sartzen saiatzen gara, baina, zenbatetan berriz ateratzen den!

Limiteen kasua nahiko adierazgarria da, askotan indarkeriarekin ezarri dira. Gaur egun, aldiz, ez dago hain ondo ikusia praktika hau. Orain, familiek ez dute indarkeria fisikoa (jotzea) edo berbala (mehatxuak, txantailak, oihuak) erabili nahi eta askotan limiterik gabeko heziera bat praktikatzen dute. Indarkeria ukatu nahi dute eta sokaren beste puntan kokatzen dira guraso batzuk. Hala ere, limiterik ez jartzea, hutsikeria kontsideratu daiteke eta, beraz, indarkeria ere izan.

Limiteak behar dituzte haurrek, maitasunez eta irmotasunez jarriak baina limiteak jarri behar dira. Norberak erabakitzen du non dagoen bere limitea eta zein den jarri behar dena. Lan hau, ordea, oso neketsua da eta ez gaitezen berriro ere, latigoarekin gure buruak jipoitzen hasi. Bai, batzuetan gurasook, indarkeria erabiltzen dugu nahi dugun hori lortzeko, mehatxuak erabiltzen ditugu, oihuak ere ateratzen zaizkigu eta batzuetan ere nekaturik ez ikusiarena egiten dugu.

Naturaltasunean eta kontzientzia formulan, gure bizitzan ikasitako guztia sartzen baita, gure haziera barne, eta gauza batzuk deseraikitzen saiatzen garen arren, erraz ateratzen dira berriz lau haizeetara.

Jarraitu dezagun maitasunez hezten, irmotasunez limiteak jartzen eta egunerokotasuna batera biziz.

Sudokuak

Beheko sudoku hauek gaineko irudiko laguntxoen ibilerarekin dute zerikusia. Barraskiloa ASTIRO doa beti, eta erbia, berriz, ARIN. Osa itzazu bi sudokuak, hutsik dauden laukietan behar diren hizkiak idatziz (seiko sudokuan A, S, T, I, R eta O, eta laukoan A, R, I eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

R	I	T	O		A
O				R	T
S			A		I
T	A		R		S
I		R			O
A	O		T	I	

R	N		
	I		N
I		N	A
			R

	Z		G	E		U	
		D		Z	L		G
A	T		U	G			L
G	L	E	D	U	Z	T	A
		G	Z		U		T
	U		A	D	E		Z
D	G			T	A		E
	A	T			G	D	

Nola lortzen dira erantzunik gehienak? GALDETUZ, jakina. Hitz ederra, sudoku handi hau osatzeko. Zortzi hizki dituzu hutsuneak betetzeko (G, A, L, D, E, T, U eta Z).

Bilatu

Animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?

Handitik txikira

Ordena itzazu hartz hauek handitik txikira, 1etik 9rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 9).



SOLUZIOAK

Kontra

Mundutik Aiaraldera

AGLAHUM LAROSI

JAIOTERRIA
TINDUF (1981)

BIZILEKUA
AMURRIO

BIDAIAREN ZERGATIA
ERREFUXIATU BEZALA ETORRI ZEN MENDEBALDEKO SAHARATIK EUSKAL HERRIRA

“Pedro Sanchez Marokoko erregearekin eserita zegoen bitartean saharartarrak erasotzen ari ziren kalean”

Noiz etorri zinen Amurriora bizitzera?

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu kanpamentuan jaio nintzen ni. Errefuxiatu jaio nintzen eta errefuxiatu bezala jarraitzen dut. 2005eko udan etorri nintzen aurrenekoz Amurriora. Nire izeba hemen bizi zen eta horregatik etorri nintzen hona.

Tarteka Andaluzian eta Espainiar Estatuko beste toki batzuetan ere bizi izan naiz, 2010ean Amurrion geratzea erabaki nuen arte. Hemen jaio dira nire hiru seme alabak.

Errefuxiatu kanpamentu batean bizitzak oso gogorra izan behar du.

Saharar herriak 46 urte daramatza errefuxiatu, bere lurretatik kanporatuta.

Nire familia guztia Tindufeko kanpamentuan bizi da. Oso gogorra da bizitza bertan. Askotan jatekorik aurkitzea ere zaila da. Gure amona errefuxiatuen kanpamentuan hil zen, bere ilobak ezagutu gabe, familiarengandik urrun

Nolako harrera izan duzu Amurrion?

Ezagutzen dut hemengo jendea errefuxiatu kanpamentura joan izan dena, eta harrera ona egin didate herrian.

Beste askok ordea, etengabe seinalatu egiten zaituzte. Ez dute ulertzen zergatik gauden hemen.

Guk ez dugu hemen bizi nahi, guk gure herrian bizi nahi dugu aske, baina ezinezkoa zaigu.

Nolakoa da egoera politikoa Mendebaldeko Saharan gaur egun?

Oso egoera konplikatua da. Pedro Sanchezek traizio egin dio herri shararrari. Espainiako Erregeak traizio egin zigun aurrena, orain Espainiako Presidenteak. Pedro Sanchez Marokoko erregearekin eserita zegoen une berean saharartarrak erasotzen eta kolpatzen zegoen Marokoko polizia.

Ukrainako Presidentearekin agerraldia egin zuen duela gutxi Pedro Sanchezek. Ulergaitza zait, nola erakutsi ahal dion elkartasuna ukrainar herriari eta bertatik datozen errefuxiatuei, eta aldi berean Saharari bizkarra eman beste behin ere. Oso bidegabea da egoera.

Guk ere gure eskubideak ditugu, zergatik jartzen zaizkie zailtasunak errefuxiatu batuzei eta erraztasunak beste batzuei? 46 urte daramagu gure eskubideen alde borrokan!

2020an Fronte Polisarioak gerra deitu zuen. Amurriotik nola bizi izan duzue gatazka hori?

Nire aita izan zen gerra frontera joandako bat. 1975etik borrokan darama nire aitak.

Ez da batere erraza izan, gainera, bertako senideekin harremana mantentzea. Astean behin euren ahotsa entzuten genuenean lasaitu egiten ginen.

SAHARA

DESKRIBAPENA
Mendebaldeko Sahara Afrika ipar-mendebaldeko lurraldea da. 1976 urtean Espaniak kolonia izandakoa abandonatu eta Ibiladi Berdeak Mendebaldeko Sahara Marokoren kontrolpean hartu zuen. 1992tik autodeterminazio erreferendum bat dago ospatzeke lurraldean.

AZALERA
266.000 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
582.000 biztanle.

HIZKUNTZA
Arabiera, gaztelania, bereberea eta hassania

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki larrakoetxea, Elixarraitz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniegako Udala · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

ausolan

Grafik
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila